



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

## 2019KO URRIAREN 31KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

1. EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, familia monomarentalek sufri ditzaketen pobrezia-egoerak ekiditeko neurriak hartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00627]

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

106/2019

"1. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen aldaketan sar ditzala familia gurasobakarrak.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio pausoak eman ditzala adostasun bat lortzeko gurasobakartasun egoeren definizio operatiboaren inguruan, eta, horretarako, gobernu-akordio bat sustatu dezala, beharrezko irizpideak finkatuko dituen egoera horien determinaziorako, kontuan hartu ahal izan daitezkeen Eusko Jaurlaritzak egiten dituen jardueretan".

## ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL DÍA 31 DE OCTUBRE DE 2019

1. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre adopción de medidas para evitar situaciones de pobreza que pueden padecer las familias monomarentales. [11\11\02\01\00627]

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES.

106/2019

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno español a que incorpore en la modificación de la Ley 40/2003, de 18 de noviembre, de Protección a las Familias Numerosas, a las familias monoparentales.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que dé pasos para lograr un consenso para la definición operativa de las situaciones de monoparentalidad y que para ello promueva un acuerdo de gobierno que fije los criterios necesarios para la determinación de estas situaciones con el fin de que puedan ser tenidas en cuenta en las actuaciones que desarrolla el Gobierno Vasco".





**2. Mozioa, Tinixara Guanche Suárez Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, euskal herritarren bizi-baldintzak hobetzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00145]**

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

30/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema zabaltzen eta garatzen. Horretarako, gainerako euskal erakundeekin batera eta eurekin elkarlanean, eutsi diezaiola Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan jasotakoari eta hura bete dezala. Helburua da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema finkatzea arduraren publikoko sistema unibertsal gisa.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gizarte-inklusioko politikak garatu ditzala ikuspegi intersektorial batetik eta sailarteko egituratze batez, Gizarteratzeko IV. Euskal Planean aurreikusitakoaren arabera.
3. Eusko Legebiltzarrak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte-inklusioko euskal sistemaren hobekuntza ezartzea helburu delarik, beharrezko deritza diru-sarrerak bermatzeko eta inklusioko lege-proposamena Legebiltzarrean tramitatzeari".

**2. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D.ª Tinixara Guanche Suárez, parlamentaria del grupo Elkarrekin Podemos, sobre mejorar las condiciones de vida de la ciudadanía vasca. [11\11\03\00\00145]**

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES.

30/2019

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a continuar el despliegue y el desarrollo del Sistema Vasco de Servicios Sociales, abordando y dando cumplimiento, en colaboración y junto con el resto de las instituciones vascas, a lo previsto en el Plan Estratégico de Servicios Sociales, al objeto de consolidar el Sistema Vasco de Servicios Sociales como un sistema universal y de responsabilidad pública.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que desarrolle las políticas de inclusión social desde una perspectiva intersectorial y con una articulación interdepartamental, según lo previsto en el IV Plan Vasco de Inclusión.
3. El Parlamento Vasco, con la finalidad de implementar la mejora del sistema vasco de garantía de ingresos e inclusión social, considera necesaria la tramitación parlamentaria de la proposición de ley para la garantía de ingresos y para la inclusión".





**3. Euskal Talde Parlamentario Popularrak egindako legez besteko proposamena, Ertzaintzaren 28. promozio izangai-praktiketako funtzionarioek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian formakuntza-ikastaroa egin bitartean dituzten baldintzei buruz. Eztatanda eta behin betiko ebazpena.**  
[11\11\02\01\00631]

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

107/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatzen dio ezar dezala dirulaguntza-sistema bat Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren sarrera-formakuntzako ikastaroetako ikasleen garraio kolektiborako, mugikortasunaren kudeaketa jasangarriagoa babestuta.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatzen dio garatu ditzala beharrezkoak diren arauak sarbide-ikastaroetako ikasleen ordainsaria arautzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldatetaren 7/2019 Legean ezarritakoaren esparruan".

**3. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, relativa a las condiciones de los aspirantes-funcionarios en prácticas de la 28 promoción de la Ertzaintza mientras realizan el curso de formación en la Academia Vasca de Policía y Emergencias.**  
[11\11\02\01\00631]

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES.

107/2019

- "1. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco a que establezca un sistema de ayudas económicas al transporte colectivo del alumnado de los cursos de formación de ingreso de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, apoyando una gestión más sostenible de la movilidad.
2. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco a que lleve a cabo el desarrollo normativo que resulte pertinente respecto a la regulación de los aspectos retributivos del alumnado de los cursos de ingreso, en el marco de lo establecido por la Ley 7/2019, de quinta modificación de la Ley de Policía del País Vasco".





**4. EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, garapenerako euskal lankidetzaren garrantziari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00628]**

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

108/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak aitortu egiten du nazioarteko elkartasunaren 30 urteko ibilbide positiboa, zeinean euskal lankidetzarentzat izaera deszentralizatuko eredu propio bat garatu baita, eredu horren indargune nagusia izanik erakundeen, elkarre-ehunaren eta eremu akademikoaren arteko elkarlana.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:
  - a) Jarrai dezala urtero areagotzen garapenerako lankidetzara bideratutako funts publikoen portzentajea, 2013ko ekitalditik hona egin den bezala.
  - b) Sakondu dezala bai 2017an onartutako (H)ABIAN 2030 Estrategiaren ezarpenean, bai Gida Planarenean ere. Helburua da aurrera egitea herritarren sensibilizazioan, ikuspuntu lokal-globalean eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzan.
  - c) Eutsi diezaiola, erakundearteko elkarlanaren eta erakundeen autonomia politikoarekiko errespetuaren printzipioei jarraituz, garapenerako euskal lankidetzaren nortasun-ikurrari, zeina euskal erakundeen arteko elkarlanean baitago errotua, eta hainbat erakundearteko proiektu garatzea ekarri baitu".

**4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre la importancia de la cooperación vasca para el desarrollo. [11\11\02\01\00628]**

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES.

108/2019

- "1. El Parlamento Vasco reconoce la positiva trayectoria de 30 años de solidaridad internacional y de desarrollo de un modelo propio de cooperación vasca de carácter descentralizado, cuyas fortalezas radican en la colaboración entre instituciones, tejido asociativo y ámbito académico.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:
  - a) Continuar con el incremento anual del porcentaje de fondos públicos que se destina a cooperación al desarrollo, tal y como se viene realizando desde el ejercicio 2013.
  - b) Profundizar en la puesta en práctica tanto de la Estrategia (H)ABIAN 2030, aprobada en 2017, como del Plan Director, con el fin de avanzar en la sensibilización de la ciudadanía, en el enfoque local-global y en la educación para la transformación social.
  - c) Mantener, de acuerdo con los principios de colaboración interinstitucional y de respeto a la autonomía política de las diferentes instituciones, la señal de identidad de la cooperación vasca para el desarrollo, que radica en el trabajo conjunto de las diferentes instituciones vascas y que ha tenido como resultado el desarrollo de varios proyectos interinstitucionales".





**5. EH Bildu eta Elkarrekin Podemos talde parlamentarioek egindako legez besteko proposamena, Ulia eta Jaizkibelgo itsas ingurunearen babesa bultzatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00609]**

Jatorrizko testuaren bozketetan berdinketa izanda, hurrengo osoko bilkuran erabakiko da.

**5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por los grupos parlamentarios EH Bildu y Elkarrekin Podemos, referente al impulso de la protección del medio marino de Ulia y Jaizkibel. [11\11\02\01\00609]**

Producido empate en las votaciones del texto original, queda pendiente para una próxima sesión plenaria.





**6. (berria) Adierazpen instituzionala, Txileko ezegonkortasun politiko eta sozialaren aurrean.**  
[11\11\05\00\00071]

Onetsia.

"Aste hauetan Txilen bizi den ezegonkortasun politiko eta sozialaren harira, Eusko Legebiltzarra jarrera bat hartu beharrean da.

Duela zenbait mendetatik hona, euskaldun asko bizi dira Txilen, eta garrantzitsua da haien ekarpena eta eragina.

Gaur egun, kezka ikusten dugu herritar askok beren erakunde eta agintariekiko atxikimendurik ez izatea.

Azken albisteek erakusten dute egoera oso larria dela, jende asko hil, zauritu edo atxilotu baita. Jakinarazi da beren asmo ekonomiko eta sozial legitimoak defendatuz kalean manifestatu direnak bortxatuak eta jazarriak izan direla.

Herritarren haserrea zenbait aldarrikapen ekonomiko eta sozialetan adierazten da.

- Egoera horren aurrean, Eusko Legebiltzarrak arbuia egiten du indarkeria; agintariei eskatzen die bete eta aplikatu ditzatela bermeekin giza eskubide guztiak; eta elkartasuna adierazten die desberdintasun izugarriak zuzenduko dituzten eta herritar gehien bizi-kalitatea hobetuko duten berdintasun-politika publikoen alde egiten dutenei.
- Eusko Legebiltzarrak elkarrizketa baketsu eta lasaiaren alde egiten du; alderdien arteko negoziazioaren eta akordio zabalaren alde, egoera kezkarri hori konpon dadin; gehien sufritzen ari direnekiko elkartasunaren alde, eta agur berezi bat bidaltzen dio han bizi diren euskal herritarren komunitate garrantzitsu eta ugariari.

**6. (nuevo) Declaración institucional sobre la situación de inestabilidad política y social en Chile.** [11\11\05\00\00071]

Aprobada.

"La situación de inestabilidad política y social que en estas semanas se vive en Chile reclama un posicionamiento del Parlamento Vasco.

Desde hace varios siglos, la presencia de vascos y vascas en Chile es notable, y su aportación e influencia es igualmente importante.

En la actualidad, observamos con preocupación el desencuentro de buena parte de la ciudadanía con sus instituciones y gobernantes.

Las últimas noticias muestran la gravedad de la situación, con muchos muertos, heridos y detenidos. Se informa de violaciones y persecuciones hacia quienes, defendiendo sus legítimas aspiraciones económicas y sociales, se manifiestan por sus calles.

El descontento ciudadano se expresa en diferentes reivindicaciones de carácter económico y social.

- El Parlamento Vasco, ante esta situación, quiere mostrar su rechazo a la violencia, su exigencia a las autoridades de observación y aplicación con garantías de todos los derechos humanos, su solidaridad con quienes apuestan por políticas públicas de igualdad que corrijan las abismales diferencias y que mejoren la calidad de vida de la mayoría de la población.
- El Parlamento Vasco apuesta por el diálogo pacífico y sereno, por la negociación y acuerdo amplio entre las partes para resolver esta preocupante situación, y por la solidaridad con quienes más sufren, enviando un saludo especial a la importante y numerosa comunidad de vascos y vascas que allí residen".

